

**JARRAIBIDEAK, ORDEZKAPENETARAKO ETA
EBENTUALITATEETARAKO ZERRENDAK ZABALTZEARI BURUZKOAK,
2011AN OSAKIDETZAKO ANTOLAMENDU-EGITURA ERALDATZEAREN
ONDORIOZ ZERBITZU ERAKUNDEAK ETA/EDO ZENTROAK BERRIRO
AUKERATU AHAL IZATEKO.**

OSAKIDETZAKO ERAKUNDEEN ERALDAKETA 2011N

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko Erabakiaren bitartez, Arabako osasun-barrutian **Arabako Unibertsitate Ospitalea** izeneko osasun zerbitzuen erakundea **sortzen da**, eta **Santiago Ospitalea** eta **Txagorritxu Ospitalea** osasun zerbitzuen erakundeak **baztertzen dira** (EHAA, 2011/07/15).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakiaren bitartez, Gipuzkoako osasun-barrutian **Debagoieneko, Debabarreneko eta Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuak sortzen dira**, eta **Gipuzkoa-Ekialdeko Eskualdeko (Ekialde)** osasun erakundea aldatzen, aurrerantzean Gipuzkoako Eskualdea deitzera pasatuz, eta **Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdea (Mendebaldea)** osasun zerbitzuen erakundea **baztertzen da**.

2011ko Kontratazio-zerrenden inskripzio orokorra 2011ko uztailaren 8tik 28ra egin zen, 2008ko EPEko kategorientzat. Aurreko bi paragrafoetan aipatutako erabakien bidez egindako antolamendu-eraldaketa onduz eta **ordezkapenetarako eta ebentualitateetarako zerrendak** egokitzeko asmoz, **epe** bat zabalduko da bertan izena eman duten pertsonak **berriro zerbitzu-erakundeak eta/edo zentroak aukera ditzaten**, hala nahi izanez gero, jarraibide hauen arabera.

Dokumentu honen I. Eranskinean laburtzen dira 2011ko ekainaren 8ko eta urriaren 3ko Erabakien bidez egindako antolamendu-eraldaketak.

Aldaketa hori dela eta, **ez da inskripzio-eperik zabalduko** aldeztu aurretik eskabiderik egin ez zuten pertsonentzat. Halaber, antolamendu-eraldaketa horrek **ez die eragingo lanpostu hutsen eta erresebatuen zerrendei, osasun-eremuak** (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) **aukeratu baldin bazituzten**.

BERRIRO AUKERATZEKO ESKABIDEEN FORMA ETA EPEA

Erakundeak eta/edo zentroak berriro aukeratzeko eskabidea www.osakidetza.euskadi.net web orrian eskura dagoen aldi baterako kontratazio-programaren bitartez egingo da, hurrengo ibilbidean: Profesionala/Giza Baliabideak/Hautaketa eta Horniketa/Aldi baterako Kontratazioa/2011ko Kontratazio Zerrendak

Kontsulta Pertsonalizatuak Menuaren bitartez:

Kontsulta atalean, **Ordezkapenen Zerrenda** epigrafean, egiaztatu ahal izango dira 2011ko urriaren 3ko Erabakian azaltzen diren Zerbitzu Erakundeak berregituratzearen ondorioz ofizioz esleitutako destinoak.

Aldaketa atalean:

- **Inskripzio-epean egindako Zerbitzu Erakundeen eta/edo Zentroyen aukeraketa** epigrafean egiaztatu ahal izango da pertsona interesdunak inskripzio-epean egindako jatorrizko destino-aukeraketa.
- **Osakidetzako antolamendu-egituraren eraldaketaren ondorioz (2012ko otsaila) egindako Zerbitzu Erakundeen eta/edo Zentroyen aukeraketa** epigrafean egiaztatu ahal izango duzu Osakidetzak proposatzen dizkizun zerbitzu-erakundeen eta/edo zentroyen aukeraketa, baldin eta jatorrizko aukeraketan antolamendu-eraldaketa eragindako destinoak bazeuden. Pertsona interesdunek **jatorrizko aukeraketa hori alda dezakete**, zerbitzu-erakundeak (gehienez 2) eta/edo zentroak (gehienez 5) alda daitezke, kenduz edo gehituz, edota Osakidetzak proposatutako aukeraketa mantendu daiteke.

Destinoak berriro aukeratzeko, 2011ko kontratazio-zerrendetan inskribatzeko erabili zenuen **pasahitza** erabili beharko duzu. Pasahitza gogoratzen ez baduzu, honela eska dezakezu:

- Eskabide-formularioaren bitartez, aplikazioak pasahitza eskatzen dizunean sarbide-kontrolatu; halakoetan pasahitz hori erabili zenuen prozesuan eman zenuen posta elektronikora bidaliko zaizu
- Eta horrela ezin baduzu pasahitza eskuratu, edo eman dizutenak ez badizu berriro aukeratzeko eskabidea egiten uzten, 945006150 telefonora dei dezakezu, eta bertan esango dizute nola eskatu eta jaso pasahitza.

Antolamendu-eraldaketa ez dio eragiten osasun-eremuei (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta, beraz, ez du aukerarik ematen lanpostu hutsen eta erreserbatuen zerrendei dagokien aukeraketa aldatzeko.

Ordezkapenen eta ebentualitateen zerrendetan izena eman duten guztiek, "aldaketa" atalaren bitartez, zerbitzu-erakundeak eta/edo zentroak alda ditzakete, jarraibide hauen atal honetan aipatzen den epe barruan. **Antolamendu-eraldaketak ez badio eragin erakundeen eta/edo zentroen aukeraketari** (Arabako Unibertsitate Ospitalea eta Debagoieneko, Debabarreneko eta Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuak, Gipuzkoako Eskualdea eta Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdea) **ez dago zertan berriro aukeratu**, jatorrizko eskabidea mantenduko delako. Hala ere, hala nahi izanez gero, aldaketa egin daiteke jarraibide hauetan ezarritako epearen barruan.

2011ko ordezkapenen eta ebentualitateen **zerrendetan zerbitzu-erakundeak eta/edo zentroak berriro aukeratzeko epea 2012ko otsailaren 14an hasten da, eta 2012ko otsailaren 23ko 14:00etan amaitzen.**

ORDEZKAPENEN ETA EBENTUALITATEEN ZERRENDETAN ZERBITZU ERAKUNDEAK ETA/EDO ZENTROAK BERRIRO EZ AUKERATZEAREN ONDORIOAK: OFIZIOZ ESLEITZEA

Dokumentu honetan azaldutako prozesuak ez du eraginik izango **lanpostu hutsen eta erresebatuen zerrenden osasun-eremuen** aukeraketan, eta pertsona interesdunak egindako **jatorrizko aukeraketa** mantenduko da.

Dokumentu honetan azaldutako prozesuak **ez du eraginik izango antolamendu-eraldaketak eragiten ez dien ordezkapenen eta ebentualitateen zerrendetako zerbitzu-erakundeen eta/edo zentroen aukeraketan** (Arabako Unibertsitate Ospitalea eta Debagoieneko, Debabarreneko eta Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuak, Gipuzkoako Eskualdea eta Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdea), pertsona interesdunek epe barruan aldaketa elektronikoak egiten dituztenean **izan ezik.**

Pertsona interesdunek **ez badituzte destinoak berriro aukeratzeko ordezkapenen eta ebentualitateen zerrendetan** eta 2011ko ekainaren 8ko eta urriaren 3ko Erabakian jasotako **antolamendu-eraldaketak eragiten badie** (Arabako Unibertsitate Ospitalea eta Debagoieneko, Debabarreneko eta Goierri-Urola Garaiko Erakunde Sanitario Integratuak, Gipuzkoako Eskualdea eta Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdea), **Osakidetza ofizioz esleituko die egitura berriari dagokion destino egokiena**, kandidatuek proposatutako aukeraketarekin bat datorrena. Ofizioz esleitzeari buruzko xehetasunak, ezarritako lehentasun-sistemaren bitartez, dokumentu honen II. Eranskinean kontsultatu daiteke.

2011KO KONTRATAZIO ZERRENDAK INDARREAN SARTZEA

2011ko Kontratazio Zerrendak **2012ko martxoan sartuko direla indarrean** aurreikusten da.

Zerrendak eguneraturik argitaratuko dira, Osakidetza-ko antolamendu-eraldaketak eraginda ordezkapenen eta ebentualitateen zerrendetan destinoak berriro aukeratzeko sistemaren ondorioz. Eta 2012ko urtarrilean zabaldutako epean aurkeztutako euskera-tituluak eta 2011ko abenduaren 31ra arteko esperientzia ere eguneraturik argitaratuko dira zerrendetan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian jasotako baldintzetan (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio-zerrendak prestatu eta kudeatzeari buruzko Erabakia)

Vitoria-Gasteizen, 2012ko otsailaren 14an

I. ERANSKINA


ZERBITZU ERAKUNDE BERRIA	OSATZEN DUTENAK
ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA	TXAGORRITXU OSPITALEA
	SANTIAGO OSPITALEA
GIPUZKOAKO ESKUALDEA	GIPUZKOA EKIALDEKO ESKUALDEA ADMINISTRAZIOA TOLOSA ANDOAIN BILLABONA IBARRA ALEGIA
DEBAGOIENENKO ESI	DEBAGOIENENKO OSPITALEA BERGARA LEINTZ-GATZAGA OÑATI ARRASATE
DEBABARRENEKO ESI	MENDAROKO OSPITALEA EIBAR ERMUA TORREKUA ELGOIBAR DEBA
GOIERRI-UROLA GARAIKO ESI	ZUMARRAGAKO OSPITALEA AZPEITIA AZKOITIA LEGAZPIA ZUMARRAGA LAZKAO ORDIZIA BEASAIN

II. ERANSKINA

HURRENKERA (*)	JATORRIZKO AUKERAKETA	OFIZIOZKO ESLEIPENA
1	BERREGITURATU BEHAR EZ DEN EZODEIN ZERBITZU ERAKUNDE	JATORRIZKO AUKERAKETA
2	TXAGORRITXU OSPITALEA	ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
	SANTIAGO OSPITALEA	
3	GIPUZKOA EKIALDEKO ESKUALDEA OSORIK	GEHIENEZ, 2 ZERBITZU ERAKUNDE OSORIK (LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO OSPITALE ETA ZENTRO INTEGRATUAK) 2011KO URRIAREN 3KO ERABAKIAN, HIRUGARREN ATALEAN AIPATZEN DIREN HURRENKERAREN ARABERA
	GIPUZKOA MENDEBALDEKO ESKUALDEA PARTZIALKI	GEHIENEZ, 2 ZERBITZU ERAKUNDE OSORIK (LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO OSPITALE ETA ZENTRO INTEGRATUAK) JATORRIZKO AUKERAKETAN ZENTROAK HAUTATU ZIREN HURRENKERAREN ARABERA
4	GIPUZKOA EKIALDEKO ESKUALDEA OSORIK	GIPUZKOAKO ESKUALDEA OSORIK (LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO ZENTRO GUZTIAK)
	GIPUZKOA EKIALDEKO ESKUALDEA PARTZIALKI	GIPUZKOAKO ESKUALDEA PARTZIALKI (AUKERATUTAKO LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO ZENTROAK)
	DEBAGOIENAKO OSPITALEA	DEBAGOIENAKO ESI (OSPITALEA ETA LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO ZENTRO INTEGRATUAK)
	MENDAROKO OSPITALEA	DEBABARRENEKO ESI (OSPITALEA ETA LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO ZENTRO INTEGRATUAK)
	ZUMARRAGAKO OSPITALEA	GOIERRI-UROLA GARAIKO ESI (OSPITALEA ETA LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO ZENTRO INTEGRATUAK)

(*) Gipuzkoa Ekialdeko Eskualdea aukeratu bada, ofizioz esleituko dira bere hausturatik sortutako 2 erakunde, 3. araua aplikatzearen ondorioz, betiere jatorrian aukeratutako zerbitzu-erakundea ez badago zuzenean erlazionaturik 1 eta 2 arauen aplikazioarekin.

III. ERANSKINA



Dirección <http://lc2011.osakidetza.net/>

Listas de Contratación

- >> Información general
- >> Bases OPE 2008
- >> Categorías en Osakidetza
- >> Listados
- Consultas personalizadas**

Consultas personalizadas

W3C WCAG 1.0

Osakidetza Información General y personalizada sobre las listas de contratación de Osakidetza

BIENVENIDOS A LA PAGINA WEB DE LISTAS DE CONTRATACIÓN

- Los datos que figuran en esta web son meramente informativos. Únicamente los textos publicados en el Boletín Oficial del País Vasco tienen validez jurídica.

- Los datos de carácter personal que se publican en esta web tienen por objeto proporcionar información a los interesados respecto del desarrollo de los diversos procesos selectivos.

Queda por lo tanto prohibida su bajada a soporte y tratamiento posterior de cualquier tipo (ley orgánica 15/1999, de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal)

1.- Tekleatu Internet Explorer-ko nabigazio-barran helbide hau:

<http://lc2011.osakidetza.net>

Hizkuntza aukeratu ondoren, sakatu pantailaren ezkerrean dagoen menu honetan

"Kontsulta Pertsonalizatuak"



Información General y personalizada sobre las listas de contratación de Osakidetza

Control de acceso

Acceso mediante la contraseña:

Contraseña *:

Enviar

Si no recuerda la contraseña, puede solicitar el envío de la misma pinchando **aquí**, caso en el cual se le enviará a la cuenta de correo electrónico que especificó en el proceso correspondiente (OPE, Listas de contratación 2008 etc.). Si no pudiera lograr así la contraseña, o si la remitida no le permite realizar la solicitud, puede llamar al teléfono 945006150, en el que se le indicará la forma de solicitar y obtener la contraseña.

2.- Zure NAN edo AIZ letra eta guzti teklatu ondoren, zure sarbide-pasahitzarekin identifikatu behar zara.

Pasahitz hori kontratazio-zerrendetan inskribatzeko eskabidean erabili zenuen pasahitza bera da.

Pasahitza gogoratzen ez baduzu, jarraitu web orri berean agindutako jarraibideei.

Menú de consultas personalizadas

Solicitud:

[Consulta](#)[Modificación](#)

3.- Tekleatutako pasahitza zuzena bada, kontsulta pertsonalizatuen menuan sartuko zara (kategoria batean baino gehiagotan izena eman bazenuen, alde zurretik horietako bat aukeratu behar duzu)

“Kontsulta” atalean ikusiko dituzu II. Eranskinaren arabera ofizioz esleitutako erakunde eta zentroak

“Aldaketa” atalean ikusi ahal izango dituzu jatorrizko erakundeak eta zentroak eta ofizioz esleitutakoak, baina aldatu ditzakezu, egoki iritzi gero.

Zerbitzuetako Erakunde bat edo bi aukera dezakezu. Lehen-Mailako Atentzioko Eskualdea, Ospitale-Kanpoko Osasun Mentala, Larrialdietako Lurraldeetako Unitateak edo Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa aukeratzekotan, gehienez bost zentru hautatzeko aukera daukazu. Aukera hau ez erabiltzekotan, ulertuko da Zerbitzuetako Erakunde guztietara hautatzen duzula / Puede elegir una o dos Organizaciones de Servicios. Si elige Comarca de Atención Primaria, Salud Mental Extrahospitalaria, Unidad Territorial de Emergencias o Centro Vasco de Transfusiones y Tejidos Humanos puede optar por elegir hasta un máximo de cinco centros. Si no hiciera uso de esta opción se entiende que opta por la totalidad de la Organización de Servicios

- 1 - Organización Sanitaria Integrada Bidasoa**
- 2 - OSI Bajo Deba**

4.- Ikus dezagun adibide bat:

Sakatu “Kontsulta” atalean

Ofizioz esleitutako zerbitzu-erakundeak agertzen dira: Bidasoko ESI eta Debarreneko ESI

Kasu honetan bezala, bi erakundeetako zentro bat ere azaltzen ez bada, esan nahi du zuri zerbitzu-erakundea osorik esleitu zaizula.

Ofizioz esleitze horren arrazoia da: zure jatorrizko aukeraketa Bidasoako ESI osorako eta Mendaroko Ospitalerako zela (ikus jarraibide hauen hurrengo atala)

Consultas personalizadas: formulario de solicitud

Paso 1: datos personales

Paso 2: datos solicitud

Kontratazioetarako zerredetan sartzeko eskabidea

Solicitud para las listas de contratación temporal

Kategoria - Espezialitatea / Categoría - Especialidad

Kategoria - Lanpostu funtzionalaren kodea / Código categoría - puesto funcional

D26501

Kategoria - Lanpostu funtzionalaren izena / Nombre categoría - puesto funcional

AUXILIAR ADMINISTRATIVO

5.- Sakatu orri-oineko "Itzuli" atalean kontsulta pertsonalizatuen menura itzultzeko.

Sakatu "Aldaketa" atalean

Jarraian sakatu mendelean

"2. urratsa: eskaera-datuak"

Zerbitzu-erakunde edo/eta Zentruen inskripzio-epean egindako aukera / Elección de Organizaciones de Servicios y/o Centros efectuada en el plazo de inscripción

1 - Organización Sanitaria Integrada Bidasoa

2 - Hospital Mendaro

6.- Lehenik, jatorrizko destino-aukeraketa ikusiko duzu: Bidasokoa ESI eta Mendaroko ESI.

Osakidetzako barne-antolaketa egituraren aldaketa dela eta, Zerbitzu-erakunde edo/eta Zentruen aukera (2012ko otsaila) / Elección de Organizaciones de Servicios y/o Centros como consecuencia de la transformación de la estructura organizativa de Osakidetza (febrero 2012)

1 -

Eskainitako zentroak aukeratzea / Selección de centros ofertados

Ondorengo zentro hauek aukeratu ditut (eskualde / OMZ bakoitzeko gehienez 5 zentro) / Elijo los siguientes centros (hasta 5 por cada comarca / SME / ...)

Eskainitak / Ofertados

ORG. SANIT. INTEGRADA BIDASOA - HOSPITAL
OSI BIDASOA - HH. ITURRINO-IRUN (AMB.)
OSI BIDASOA - HONDARRIBIA (CONSULTORIO)
OSI BIDASOA - IRUN-DUMBOA (CENTRO DE SALUD)

Aukeratutak / Seleccionados

7.- Jarraian, lehen zerbitzu-erakundea eta ofizioz esleitutako zentroak ikusiko dituzu.

Kasu horretan, ofizioz esleitutakoa erabat bat dator jatorrizko aukeraketarekin: Bidasokoa ESI osorik.

**Behatu “hautatuak” laukian ez dela zentro bat ere ageri.
Horrek esan nahi du erakundean eskainitako zentro guztiak aukeratzen dituzula edo esleitzen zaizkizula.**

2 - OSI Bajo Deba

Eskainitako zentroak aukeratzea / Selección de centros ofertados

Ondorengo zentro hauek aukeratu ditut (eskualde / OMZ bakoitzeko gehienez 5 zentro) / Elijo los siguientes centros (hasta 5 por cada comarca / SME / ...)

Eskainitak / Ofertados

DEBA EIBAR ELGOIBAR ERMUA OSI BAJO DEBA - HOSPITAL TORREKUA
--

Aukeratutak / Seleccionados

8.- Jarraian, bigarren zerbitzu-erakundea eta ofizioz esleitutako zentroak ikusiko dituzu.

Kasu horretan, ofizioz esleitutakoa (Debabarreneko ESI osorik) ez dator bat jatorrizko aukeraketarekin (Mendaroko Ospitalea).

**Behatu “hautatuak” laukian ez dela zentro bat ere ageri.
Horrek esan nahi du erakundean eskainitako zentro guztiak aukeratu dituzula edo esleitzen zaizkizula.**

2 - OSI Goierri-Alto Urola

Eskainitako zentroak aukeratzea / Selección de centros ofertados

Ondorengo zentro hauek aukeratu ditut (eskualde / OMZ bakoitzeko gehienez 5 zentro) / Elijo los siguientes centros (hasta 5 por cada comarca / SME / ...)

Eskainitak / Ofertados

BEASAIN
LAZKAO
ORDIZIA

Aukeratutak / Seleccionados

1.- AZKOITIA
2.- AZPEITIA
3.- LEGAZPI
4.- OSI GOIERRI-ALTO UROLA - HOSPITAL
5.- ZUMARRAGA

9.- Ofizioz esleitutako aukeraketa aldatzeko, zerrendako erakunde bat hautatu behar duzu. Zentro batzuk bakarrik hautatu nahi badituzu, “eskainitakoak” laukitik “hautatutakoak” laukira pasatu behar dituzu.

Kasu honetan hauek aukeratu dira: Goierri-Urola Garaiko ESI eta bakar-bakarrik Azkoitiko, Azpeitiko, Legazpiko, Zumarragako zentroak eta Goierri-Urola Garaiko ESI (Ospitalea).

Gogoratu hautaketa partziala eginenez gero, gehienez 5 zentro hautatu daitezkeela.